

11. ikasgaia

## **ESKUMENA: KONTZEPTUA**

### **1. Eskumena: kontzeptua**

Definizioa

### **2. Jurisdikzioaren hedatzea eta mugak**

BJLOaren 4., 9.1., 21., 22., 23., 24. eta 25. artikulua.

### **3. Eskumen generikoa. Eskumen-gatazkak**

Kontzeptua

Ordena zibilaren "vis attractiva"

Eskumen-gatazkak: BJLOaren 42. eta hurrengo artikulua.

- 42. artikulutik ateratako ondorio bi
- Ezaugarriak
- Tratamendu prozesala

### **4. Eskumena emateko irizpideak**

a) Objektiboa:

- Prozesu zibilean: gaia eta diru-munta. Gaiaren lehentasuna
- Prozesu penalean: kualitatea eta kantitatea

b) Funtzionala:

- Prozesuaren faseak
- Instantziak

c) Lurraldekoa:

Ordena zibilean eskumena ituntzeko aukera

d) Tratamendu prozesala

### **5. Ordena jurisdikzionalaren barruko gatazkak: eskumen-arazoak**

BJLOaren 51. eta 52. artikuluetako arau komunak

a) Ordena zibilean: deklinatoria

b) Ordena penalean: eskumen-arazo positibo eta negatiboak

### **6. Balizko aldaketak eskumena behin betiko zehaztean**

### **7. Negozioen banaketa**

## 8. Laburpena. Eskumena finkatzeko bidea

Espainiako organoak?; Jurisdikzioaren hedatzea

\*

Jurisdikzioaren organoak ala beste organo batzuk?

(Jurisdikzio-gatazkak)

\*

Zein ordena jurisdikzional?

(Eskumen-gatazkak)

\*

Ordena jurisdikzional baten barruan, zein?

Irizpideak: lurraldekoa, objektiboa, funtzionala

(Eskumen-arazoak)

\*

Herri batean, zein?; negozioen banaketa

## 1. ESKUMENA: KONTZEPTUA

Aurreko ikasgaietan, hainbat arrazoi direla-eta esan genuen Botere Judiziala antolakuntza baten bidez gauzatzen dela, auzitegi eta epaitegi guztiak elkartzen dituen antolakuntza baten bidez, hain zuzen ere. Gogora dezagun jurisdikzio kontzeptua banaezina zela, hots, organo jurisdikzional bakoitzak jurisdikzio osoz ebazten duela, eta haien artean eskumena banatzen zela, ez jurisdikzioa.

Hori kontuan hartuta, beharrezkoa da jakitea epaitegi eta auzitegi jakin bakoitzak zein auzi edo gatazka ebatzi behar dituen. Eta hori da **eskumena**, epaitegi bakoitzaren ebazte-eremua zehaztea, alegia.

Orain, eskumena nola banatzen den ikusiko dugu, hau da, eskumena banatzeko (edo auziak epaitegien artean banatzeko) zein irizpide hartzen diren kontuan. Izan ere, auziak banatzeko badaude hainbat arrazoi: Espainiako lurraldearen tamaina, gaien konplexutasuna, eta abar...

Orokorrean, **irizpide** horiek hiru dira:

- Gatazkaren objektuan oinarrituta dagoen irizpidea: objektiboa
- Lurralde-irizpidea
- Organo jurisdikzionalaren jarduera prozesala aintzat hartzen duen irizpidea: irizpide funtzionala

Ondorioz, **eskumenaren definizioa** honako hau izango da: organo jurisdikzional ezagun bati auzi jakin baten ebazpena ematen dion erregela edo irizpide multzoa. Haien bidez jakingo dugu auzi jakin bat zein organo jurisdikzionalak ebatziko duen, eta zein auzialdik eta lurraldetakoa den. Dena den, eta geroxeago ikusiko dugun moduan, eskumena zehaztea askotan ez da gauza erraza izango, hainbat arauen artean gatazkak sor daitezkeelako.

## 2. JURISDIKZIOAREN HEDATZEA ETA MUGAK

Aurreko atalean eskumena banatzeko irizpideak aipatu ditugu; hala ere, hori egin aurretik -hau da, gatazka baten ebazpena Estatuko epaile jakin bati dagokiola esan aurretik-, jakin beharko dugu eskumena benetan Espainiako

epaile bati dagokion ala beste Estatu bateko epaile bati dagokion. Jurisdikzioaren hedatzearen bidez, espainiar auzitegiek legitimoki eta eraginkorki landu ditzaketen gaiak zehaztea lortuko da.

Horrenbestez, Espainiako jurisdikzioa gatazka horren ebazpenera heltzen den aurretiaz jakin beharko dugu; horretarako –hots, Espainiako jurisdikzioaren hedatze eta muga horiek ezagutzeko- hiru lege ezberdin aztertzea beharrezkoa da:

- Botere Judizialaren Lege Organikoaren 4., 9.1. eta 21. artikulutik 25. artikulua arte.
- Prozedura Zibileko Legearen 36. artikulutik 39. artikulua arte.
- Prozedura Kriminaleko Legearen 46. eta 47. artikulua.

Hala ere, ez ditugu nazioarteko zuzenbide pribatuan ikasten diren nazioarteko itun eta hitzarmenak ahaztu behar, horiek oso garrantzitsuak baitira esparru honetan.

Arau orokorra Botere Judizialaren **Lege Organikoaren 4. artikuluan** dago, eta honako hau xedatzen du: “jurisdikzioa pertsona guztiengana, gai guztietara eta Espainiako lurralde guztira hedatzen da, konstituzioak eta legeek dioten moduan”. Ikus dezakegunez, artikulua horren interpretazioak Espainiako jurisdikzioa ia-ia edonora zabaltzen dela ondorioztatzera garamatza.

Hala ere, Lege Organikoaren **9.1. artikulua** aurreko artikulua zehazten du, eta Espainiako jurisdikzioa mugatu egiten du. Artikulu horrek dio Espainiako jurisdikzioaren eremua Botere Judizialaren Lege Organikoak berak edo beste lege batek ezarritakoa izango dela, hau da, Espainiako auzitegiek bakarrik legeek esaten dituzten gatazka ebatz ditzaketela.

Hori esanda, Lege Organikoak ordena jurisdikzional guztien jurisdikzioaren hedatzea zehazten du bere **21. artikuluan eta hurrengoetan**.

Artikulu horietan zehar, ordena jurisdikzionalari eskumena emateko irizpideak topa ditzakegu, eta, kasu jakin horietarako, Espainiako jurisdikzioa aldarrikatzen du. Artikulu bakoitzak ordena bateko irizpideak jasotzen ditu; baina, orain, ordena zibila hartuko dugu ardaztat; horri 22. artikulua dagokio. Espainiako ordena jurisdikzional zibilari eskumena emateko, artikulu horretan

agertzen diren irizpideen artean, adibide batzuk aipatuko ditugu: Espainian aurkitzen diren higiezinaren eskubide errealei buruzko gaiak, erregistro espainiar batean jasotako izena-emateen baliozkotasunaren ingurukoak, bizilekua lurralde espainiarrean duten pertsona juridiko edo elkarten eraketari buruzkoak, eta abar.

Gai hori, batez ere, nazioarteko zuzenbide pribatuari dagokio, Espainiako eskumena beti beste Estatu baten eskumenarekin alderatzen delako (esaterako, eskumena Frantziako auzitegiei edo Espainiakoei dagokie). Nazioarteko zuzenbide pribatuan, irizpideak zehazki zein diren aztertzen da, eta baita gai horren inguruko nazioarteko itun batzuk ere (Bruselako eta Luganoko hitzarmenak, esaterako)

### 3. ESKUMEN GENERIKOA. ESKUMEN GATAZKAK.

Aurreko atalean jurisdikzioa Espainiako auzitegiei noiz dagokien zehaztu ondoren, **eskumen generikoaren** bitartez auzi jakin baten ebazpena zein ordena jurisdikzional dagokion jakingo dugu.

Lege Organikoak ordena jurisdikzional guztien eskumen generikoa finkatzen du bere 9. artikuluan (9.2., 9.3., 9.4., 9.5. artikuluetan, ordena zibila, penala, administrazioarekiko auzien ordena, lan-ordena, hurrenez hurren). 9.2. artikuluan, ordena jurisdikzional zibilar dagokion ebazpen-eremua zehazten da; han esaten da bere gaiak aztertzeaz ez ezik ordena zibila beste organo jurisdikzional bati esleitzeke dauden gaiak ere ebazteaz arduratuko dela. Horrek esan nahi du ordena jurisdikzional zibilak "**vis attractiva**" edo erakartzeko indarra duela gai horien ebazpenaren gainean.

Hori esanda, kontuan hartu behar dugu hasiera batean bi ordena jurisdikzional besterik ez zeudela, zibila eta penala, eta gero, denbora pasa ahala eta, batez ere, lan-gatazkak eta administratiboak sortu ahala, administrazioarekiko auzien ordena eta lan-ordena jurisdikzionala zibiletik bereizi zirela.

Ondorioz, haien arteko eskumenen mugak ez dira hain argiak (behintzat zibil eta penalen arteko mugekin alderatuta), eta, beraz, haien artean baliteke auzi bat ebaztea zehatz-mehatz nori dagokion argi ez jakitea.

Aipatu ditugun balizko zalantza horiek **-eskumen-gatazkak**\_izenekoak aurreikusi ditu legeak, eta Auzitegi Gorenean berriazko gela bat sortu da horiek ebazteko. Eskumen-gatazka horiek Botere Judizialaren Lege Organikoaren 42. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusita daude. 42. artikulua hori irakurriz gero, **bi ondorio** atera ditzakegu:

- Botere Judizialaren antolakuntzan sartutako bi ordena jurisdikzionalen arteko gatazkak dira, hau da, lan-ordenaren, zibilaren, penalarren, eta administratiboren arteko gatazkak (ez militarra, ezta Konstituzio Auzitegia ere).
- Gatazka horiek ebazteko dituen Auzitegi Goreneko gela berezia Auzitegi Goreneko Presidenteaz eta beste bi magistratuez osatuta dago; gatazka duten ordena jurisdikzionaletakoak izan beharko dute bi magistratu horiek (ondorioz, gatazka duten ordenen arabera, magistratuak ere ezberdinak izango dira).

Horrez gain, gatazka horien ebazpenari buruzko **ezaugarri** zehatz batzuk aipatzen ditu legeak:

- Ordena jurisdikzional penalak lehentasuna du (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 44. art.); horrenbestez, ezin da haren kontra eskumen-gatazkarik aurkeztu.
- Gatazka positiboa edo negatiboa izan daiteke; lehendabiziko kasuan, bi organoek -ordena jurisdikzional ezberdinekoak direnak- eskumena haiei dagokiela pentsatzen dute; negatiboan, berriz, baieztatzen dute bi organoek ez dutela auzia ebazteko eskumenik .
- Prozedura nahiko konplexua da; organo jurisdikzionalen eskumenaren gaineko iritzia emateko eskatzen zaie, eta adostasunik ez balego, Auzitegi Goreneko eskumen-gatazkako gelak eskumena nori dagokion esango luke, eskumenari buruzko auto bat emanez.
- Eskumen-gatazkak jartzeko legitimazio aktibodunak (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 43. artikulua) alderdiak, Ministerio Fiskala eta epailea (ofizioz) izango dira.

**Tratamendu prozesalari** dagokionez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 9.6 artikulua "jurisdikzioa luzaezina" dela dio; ondorioz ordena baikoitzak berari dagokiona soilik ebatzi beharko du, bestela egintza prozesala deuseza izango baita. Gainera, organo jurisdikzionalak bere eskumen falta ofizioz antzeman beharko du, horrela egin ezean alderdiek eskumen gatazka aurkez dezakete eta.

#### 4. ESKUMENA EMATEKO IRIZPIDEAK

Puntu honetara ailegatuta, jadanik badakigu, alde batetik, Espainiako auzitegiek jurisdikzioa dutela, eta, bestetik, auziaren ebazpena ordena jurisdikzional jakin bati dagokiola.

Orain aipatuko ditugun irizpideen bidez jakingo dugu ordena jurisdikzional horren barruan zehatz-mehatz auzi horren ebazpena zein organo jurisdikzional -epaitegi edo auzitegiri- dagokion . Irizpide horiek hiru dira -objektiboa, funtzionala eta lurraldeari dagokiona-, eta banan-banan ikusiko ditugu.

##### a) Irizpide objektiboa

Irizpide horren arabera, auziak banatzeko -hots, auzi baten ebazpena epaitegi jakin bati emateko-, **prozesuaren objektua** hartzen da kontuan.

Prozesu motaren arabera, hau da, prozesu zibiletan edo penaletan, irizpide objektibo horren edukia ezberdina izango da:

**Prozesu zibiletan**, organo jurisdikzional batek eskumena izan dezake bi arrazoiengatik:

- Prozesuaren gaia edo materia dela-eta (*ratione materiae*)
- Auziaren objektuaren balioa edo diru-munta dela eta (adibidez, Prozedura Zibileko Legearen 47. art., bake-epaitegientzat)

Dena den, Prozedura Zibileko Legearen 248.3. artikulua irakurriz gero, esan behar dugu ordena jurisdikzional zibilean materia-irizpideak duela **lehentasuna** diru-muntaren aurretik duela.

**Prozesu penalean** aintzat hartu beharreko irizpideak kualitatiboak eta kuantitatiboak izango dira.

- Irizpide kualitatiboan, inputatuaren baldintzak hartzen dira kontuan (adibidez, inputatua forupekoa bada, Auzitegi Gorenari egokituko zaio beraren delituak ebaztea).
- Irizpide kuantitatiboan, araua urratzea delitua den edo falta den hartzen da kontuan, eta baita dagokion zigorraren munta edo kopurua ere.

### b) Irizpide funtzionala

Hor, organo jurisdikzionalak betetzen duen funtzio prozesala hartzen da aintzat; hala, honako hauek aztertuko dira: ea auzi bat lehendabiziz ezagutzen duen (lehendabiziko auzialdia), edo epai baten kontrako helegitea ezagutzen duen, edo epai bat betearazteaz arduratzen den.

Beraz, irizpide funtzionalaren bidez, batez ere, **gauza bi** jakingo ditugu:

- Prozesu baten faseak zein epailek ebatziko dituen (epaiketa fasea, betearazte fasea edota kautelazko prozesua)
- Lehendabiziko instantzia zein epaitegiri dagokion, eta baita bigarrena ere, hau da, helegitearen ebazpena zein auzitegiri dagokion. Horrez gain, eta kasazioa egonez gero, horren organo epailea zein izango litzatekeen ezagutuko genuke, halaber.

### c) Lurralde-irizpidea

Irizpide horren bidez, lurralde batean dauden epaitegien artean auzia zehatz-mehatz nor ebatziko duen jakingo dugu (adibidez, Getxoko epaitegiak, edo Bilbokoak, edo Bizkaiko Auzitegi Probintziala, edo Gipuzkoakoa, eta abar...).

Ordena jurisdikzional zibilari dagokionez, orain laburki eta bakarrik aipamen gisa (Prozesu zibileko zatian sakontasunez ikasten baita) irizpide objektibo eta funtzionalarekin alderatuta esango dugu lurralde-irizpidea ezberdina dela, batzuetan **alderdiek itundu dezaketelako** auzia zein



lurraldetako organo jurisdikzionalak ebatziko duen; horrexegatik esaten da luzagarria dela, organo jurisdikzionala alderdiek aukeratu dezaketelako (Prozedura Zibileko Legearen 54., 55., eta 56. artikulua).

#### **d) Tratamendu prozesala**

Epaile batek, auzi bat jasotzean, ofizioz kontrolatu behar du auzi jakin horren ebazpena berari dagokion ala ez.

Baina, hor, ñabardura bat egin beharra dago: lehen esan dugu prozesu zibilean batzuetan alderdiek men egite-itun bat egin dezaketela, eta itun horren bidez beren auziak ebazteko eskumena haiek nahi duten lurraldeko epaileari esleia diezaiokeela.

Hori kontuan hartuta, esango dugu epaileak ofizioz eskumena emateko irizpide guztiak aztertu behar dituela, beti ere salbuespen batekin: ordena jurisdikzional zibilean, Prozedura Zibileko Legearen 54. artikuluan aipatutako kasuetan, lurralde-irizpidea ez du aztertu beharrik izango.

## **5. ORDENA JURISDIKZIONALAREN BARRUKO GATAZKAK: ESKUMEN ARAZOAK**

Orain arte ikusitakoarekin dagoeneko badakigu Botere Judizialak arduratu behar duela auzi bat ebazteaz; eta, orobat, auzia ebatziko duen ordena jurisdikzionala (zibila, penala, etab.) zehaztuta, jakin ahal izango dugu irizpide objektiboaren, funtzionalaren eta lurraldearekin zerikusia duenaren bitartez ordena jurisdikzional horren baitan zein organo arduratuko den . Baina litekeena da gatazka bat ebazteko orduan ordena jurisdikzional bereko bi organoren artean gatazkak agertzea, biek beren burua eskuduntzat jotzeagatik , edo eskudunak ez direla pentsatzeagatik. Gatazka horiei **eskumen-arazoak** deritze.

Eskumen-arazoak konpontzeko, ordena jurisdikzional bakoitzak bere arauak ditu. Guk banan-banan ikusiko ditugu, bai ordena zibilari dagozkionak, baita ordena penalari dagozkionak ere; hala ere, Botere Judizialaren Lege

Organikoak -bere 51. eta 52. artikuluetan- eskumen-arazoak konpontzeko funtsezko ezaugarriak eman ditu, prozesu guztietan aplikatzen direnak.

Alde batetik, Lege Organikoaren **52. artikulua** irakurriz gero, jabetzen gara eskumen-arazoak organo jurisdikzional **parekoen artean** sortzen direla (hau da, lehendabiziko auzialdiko bi epaitegien artean edo bi Auzitegi Probintzialeen artean, esaterako). Kategoria bereko organoen artean geratuko dira eskumen arazoak –inoiz ez menpeko organoen artean-, eta, gehienetan, - lurralde irizpidearen inguruan sortuko dira.

Bestetik, Lege Organikoaren **51. artikuluan** xedatzen da parekoak diren organo horien arteko arazoak **goiko auzitegi erkideak** ebatziko dituela.

Hori aintzat hartuta, azter dezagun xeheki eskumen-arazoak ordena zibilean eta penalean:

#### a) Ordena zibilean

**Deklinatoria** aipatzea beharrezkoa da une honetan. Auzi-jartzaileak epaitegi batean jartzen du demanda, eta, hori egitean -hau da, demanda epaitegi jakin horretan aurkeztean-, aditzera ematen ari da bere ustez epaitegi hori auzia ebazteko eskuduna dela. Deklinatoriaren bidez, demandatuak uko egiten dio demanda jartzetik sortutako eskumenari (Prozedura Zibileko Legearen 63. art.).

Deklinatoria aurkezteko lekuari dagokionez, deklinatoria-auziaz arduratzen ari den epailearen aurrean (hau da, auzi-jartzaileak demanda jartzeko aukeratutako epaitegiaren aurrean) edo demandatuaren bizilekuko epaitegien aurrean aurkeztuko da, baina, kasu horretan, ahalik azkarren jakinaraziko dio beste epaitegiari (Prozedura Zibileko Legearen 63.2 art.).

Halaber, deklinatoriaren idazkian datu batzuk agerian utzi behar dira:

- Alde batetik, bere ustez eskuduna den epaitegia zein den adierazi beharko du (Prozedura Zibileko Legearen 63.1/2 artikuluan), gero deklinatoria onartzen bada, epaitegi horri auto guztiak bidaltzeko.
- Beste alde batetik, legeak (Prozedura Zibileko Legearen 65.1. artikulua) deklinatoria oinarritzen duen dokumentuak edo agiriak

emateko eskatzen du; beraz, deklinatoriaren idazkiarekin batera, agiri-edo froga-iturburu horiek aurkeztu beharko dira.

Deklinatoriaren idazkia gainontzeko alderdiei helarazten zaie. Horrekin bukatzeko, esango dugu (Prozedura Zibileko Legearen 64.2. artikulua) deklinatoria aurkezteak prozesua eteteko ondorioa badakar ere auzitegiek froga ziurtatzeko neurriak har ditzaketela eta baita kautelazko neurriak ere.

### **b) Ordena penalean**

Prozedura Kriminaleko Legean araututa daude eskumen-arazoak, eta han xedatzen da horiek bai ofizioz bai alderdiek eskaturik aurkez daitezkeela; era berean, positiboak eta negatiboak izan daitezke:

- **Positiboan** kasuan, beren burua eskuduntzat jotzen duten auzitegiek aurkez dezakete arazoa, auzia ebazten ari den epaitegiari inibitzeko eskatzeko.
- **Negatiboan** dagokienez, epaileak bere burua auzi jakin bat ebazteko eskuduntzat jotzen ez duenean, bere ustez eskuduna den organoaren alde inibitu egingo da, eta horri bidaliko dizkio auziari dagozkion autoak, horretarako alderdiek edo Ministerio Fiskalak erreklamaziorik aurkeztu ez arren.

Horrez gain, Prozedura Kriminaleko Legeak, eskumen-arazoei irtenbidea emateko, ezberdintze bat egiten du prozesu motaren arabera: alde batetik falta-prozesuentzat (Prozedura Kriminaleko Legearen 19.1. eta 27.etik 45. artikulura), bigarrenez, prozesu penal laburtuentzat (Prozedura Kriminaleko Legearen 782.artikulua) eta, bestetik, prozesu penal arruntentzat (Prozedura Kriminaleko 19., 22., 23., 24.artikuluak). Kasu bakoitzean, eskumen-arazo horiei buruzko prozedurak eta jarraitu beharreko arauak zenbait berezitasun izango dituzte.

## **6. BALIZKO ALDAKETAK ESKUMENA BEHIN-BETIKO ZEHAZTEAN**

Eskumena behin-betiko zehaztuta egonik, litekeena da aldatzea, baina kasu jakin gutxitan, adibidez, prozesu-mota aldatzen bada, edo ordena penalean forupekoa den pertsona bat eta hasiera batean inputatu ez zena inputatu bihurtzen bada (kasu horretan, auto guztiak Auzitegi Gorenari bidali beharko zaizkio), eta abar...

Ordena zibilean, akzio-metaketa eta prozesu-metaketa aipatu behar ditugu; haien bidez, egoera jakin batzuetan, bi akzio ezberdin edo bi prozesu ezberdin prozesu bakar batean izapidetuko dira eta epai bakar batekin amaitu (Prozedura Zibileko Legearen 71. eta 74. artikulua, hurrenez hurren).

Halaber, prozesu-metaketa kasuan, hasieran organo jurisdikzional ezberdinek ebazten dituzten prozesu bat baino gehiago erraz izan ditzakegu, eta horiek, prozesu-metaketa egin ostean, ordea, prozesu bakar batean izapidetuko dira. Beraz, argi dago eskumenaren aldaketa bat gertatu dela, hasieran auziaz arduratzen ari zen organo jurisdikzional batek horretaz arduratzeari utziko baitio.

## **7. NEGOZIOEN BANAKETA**

Negozioen banaketak nola funtzionatzen duen jakiteko eta ulertzeko, komenigarria da bera zertan datzan aurretiaz adibide batekin ikustea: dagoeneko badugu auzi-jartzailearen eta demandatuaren arteko auzi bat, epaitegietan aurkeztuta, eta, aurreko ataletan azaldutako irizpideei esker, dagoeneko badakigu Bilboko lehendabiziko auzialdiko epaitegiek –demagun Bilbon 15 lehendabiziko auzialdiko epaitegi daudela- haren ebazpenaz arduratu behar dutela; baina zehazki Bilboko lehendabiziko auzialdiko zein epaitegi arduratuko den zehazteke geratzen zaigu. Horretan datza, hain zuzen ere, negozioen banaketa: zehatz-mehatz organo arduraduna zein den esatean. Arazoa zera da: badakigu objektiboki, funtzionalki eta lurraldeari dagokionez zein organo arduratuko den auziaz, baina mota horretako organo bat baino gehiago dago.

Horri buruz, honako hau xedatzen du Botere Judizialaren Lege Organikoaren 167.1. artikulua: “mota bereko epaitegi bi baino gehiago dauden herrietan, negozioak aldeztu aurretik ezarritako arauen bidez banatuko dira (...)”.

Artikulu horren arabera, irizpide objektiboetan oinarrituta egon beharko duten negozioak banatzeko arau horiek Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Gelak onartzen ditu, ordena jurisdikzional bakoitzaren epaileen batzarrak entzun ostean. Ez dira eskumen-arauak izango, izaera administratibokoak baizik; horretaz jabetzeko, nahikoa dugu arau horiek ezartzen dituen organoari so egitea: Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Gela.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 167.2. artikuluari jarraiki, arauak onartzen direnean, haien eguneroko aplikazioa epaile dekanok ikuskatu edo gainbegiratuko du.

Halaber, kide anitzeko beste organo batzuetan ere suerta liteke negozioak banatzeko arauak beharrezkoak izatea, auzitegiek atal bat baino gehiago izateagatik –hau da, atal horien artean auziak banatzeko erabiliko dituzte arau horiek- (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 152.2/1 artikulua).

Negozioak banatzeko arau horiek lanaren beharrezko banaketan dute oinarri. Arau horiek eraginkortasuna bilatu beharko dute epaitegien lanari dagokionez, eta negozio edo auzi kopurua homogeneitasunez banatzen saiatuko dira, organo guztiek neurri berean lan egin dezaten.

## 8. LABURPENA. ESKUMENA FINKATZEKO BIDEA

Lehendabizi, auzi baten ebazpena Espainiako organoei dagokien ala ez zehaztuko da (**Jurisdikzioaren hedatzea** izenekoa).

Bigarrenez, Auzi hori jurisdikzioko –hots, Botere Judizialaren antolakuntzako organo batek, edo administrazioak-, edo auzitegi berezi batek ebatzi behar duen aztertuko dugu. Urrats horretan sor daitezkeen arazoei **Jurisdikzio-gatazkak** deitu diegu (7. ikasgaietan ikasi ditugunak).

Auzi horren ebazpena zein ordena jurisdikzionalari dagokion aztertuko da ondoren. Batzuetan, ordena batek baino gehiagok pentsatuko du eskumena berea dela: **Eskumen-gatazkak** sortuko dira.

Laugarrenez, eta jadanik ordena jurisdikzional baten barruan, auzia ebazteko eskumena duen organo jurisdikzionala zehaztu beharra dago: zein instantziatakoa, lurraldea, eta abar...; hori erabakitzeko, hiru irizpide dira erabiliko ditugunak: funtzionala, objektiboa eta lurralde-irizpidea.

Edonola ere, eta nahiz eta irizpideak era egokian erabiltzen diren, batzuetan, ordena bereko bi organok esango dute eskumena berena dela; une horretan, **Eskumen-arazo** bat sortuko da.

Bukatzeko, Herri berean mota bereko epaitegi bat baino gehiago egon daiteke, eta **Negozioen banaketaren** arauak aztertu beharko dira haien artean gure auzia ebazteaz zein arduratuko den jakiteko.